



**Oñatiko Udala**

**ENPRESA BERRIEN SUSTAPENA**

**LAGUNTZA ARAUDIA**

*Oñati, 2008ko apirila*

# ***Udalak enpresa berrien sustapenerako emango dituen dirulaguntzen oinarriak.***

## **XEDAPEN OROKORRAK**

### **I. XEDEA**

#### **1. artikulua.**

Araudi honen xedea, Oñatiko Udalak, enpresa berrien sustapenerako emango dituen laguntzak arautzea da.

Horretarako, ondorengo ataletan, laguntza hauek emateko irizpideak eta prozedura finkatuko dira.

Laguntza ezberdin hauek ematerakoan, Oñatiko Udalaren azken helburua, enpresa berriak sustatzea da, horretarako baliabide ezberdinak eskainiz.

#### **2. artikulua.**

Oinarri hauek eta dirulaguntza ematean indarrean dauden gainerako arauak arautuko dute dirulaguntza hauek ematea eta Udalaren eta onuradunen arteko harreman juridikoa.

Oinarrietan agertzen ez den guztian, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta indarrean dauden gainerako arauak aplikatuko dira.

### **II. ONURADUNAK**

#### **3. artikulua.**

Laguntza jaso ahal izango dute, batez ere, Oñatin egoitza eta jardun eremua daukaten pertsonak eta enpresek. Ondoren azaltzen direnak izango dira eskatzaileek bete beharko dituzten baldintzak:

–Oñatikoa izan edo/eta Oñatiko Udalerrian erroldatu eta helbideratutako (gutxienez 6 hilabeteko antzintasunarekin), enpresa ideia garatzeko aurkezten den adin nagusiko edozein pertsona fisiko izan liteke programa hauen onuradun.

–Lokal lagapeneko programan laguntza eskatzeko, sustatzaileek Oñatikoak ez izan arren, sortu berria den enpresa, Oñatin helbideratuta egon beharko da.

–Olaburu Zentruko lokal lagapena eskatzeko, eta enpresa eratuta balego, IAE-delakoan alta emandako egunetik eskaerako datara, gehienez urtebeteko epea egon beharko da.

–Laguntza hau eskatu ahal izateko, enpresek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a)Hasierako plantila hamar langile baino gutxiagokoa izatea.

b)Kapital soziala 120.000 Eurokoa baino gutxiagokoa izatea.

### III. LAGUNTZA MOTAK

#### **A)Enpresa ideiarene bideragarritasun azterlanerako:**

##### **1)Aholkularitza teknikoa:**

4. artikulua.

Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Merkataritza Batzordeko pertsonalaren bitartez, edo/eta Batzorde honekin inplika litekeen hainbat entitate, administrazio nahiz enpresa arloko teknikari espezializatuen bidez emango da aholkularitza teknikoa. Kanpoko entitateen inplikazio hauek, beste programa batzuren barnean egon litezke.

5. artikulua.

Enpresa ideiarene bideragarritasun plana egiteko, tutoritza zerbitzua emanaz, landu beharreko puntuak jorratzen lagunduko zaie sustatzaileei, hala nola:

Produktua/zerbitzuaren definizioa.

Merkatu ikerketa.

Marketing plana.

Azterketa teknikoa.

Giza baliabideak.

Ekonomi eta finantza plana.

Enpresaren forma juridikoa.

Enpresa eratzeko gauzatu beharreko tramiteak.

## 2)Bideragarritasun azterlanerako beka:

### 6. artikulua.

Aurreko puntuan adierazitako laguntzaz gain, bideragarritasun azterlana garatzerakoan, lan-dedikazioarengatik eta sor litezkeen gastuei aurre egiteko, Oñatiko Udalak, dirukopuru bat, beka kontzeptuan eman diezaiokie enpresa sustatzaileari.

### 7. artikulua.

Dedikazioa eta gastuak, proiektuaren arabera, ezberdinak izan litezke. Gastuei dagokionez, sor litezkeenak, besteak beste: Informazioa jasotzean eginiko bidaia gastuak, hainbat dokumentazio lortzeko egindakoak, prototipoen kostuak, enpresaren hasierako tramite gastuak, etab. Hau kontutan izanik, laguntzearako sailkatzerakoan, hiru mailako proiektuak kontenplatuko dira.

### 8. artikulua.

Laguntza onartu ezkeru, beka hau, enpresa proiektuaren txostena aurkeztu ondoren ordainduko da.

## B)Lokal lagapena: Olaburu Enpresa Ekimenen Zentrua.

### 9. artikulua.

Oñatiko Udalak, Olaburu Zentruan (Zubillaga, 20), dauzkan lokalak hauek dira:

ZERBITZU BULEGOAK MODULOS de SERVICIOS		TAILERRAK TALLERES	
Izena Nombre	Azalera Superficie	Izena Nombre	Azalera Superficie
ZB1	24 m <sup>2</sup>	1B*	197,56 m <sup>2</sup>
ZB2	24 m <sup>2</sup>	3B*	202,23 m <sup>2</sup>
2C/5	16 m <sup>2</sup>	2C/2	70,62 m <sup>2</sup>
* Beheko planta / En planta baja. - Besteak 1go plantan Resto en 1 <sup>a</sup> planta		2C/3	124,68 m <sup>2</sup>
		2C/4	51,71 m <sup>2</sup>
		3(1C+1D)	420,03 m <sup>2</sup>

Tailer eta bulego lagapenaren baldintzak orokorrak:

## 10. artikulua.

Udala eta enpresa berriaren arteko alokairu kontratu bat sinatuko da, bertan xehetasun guztiak zehaztuko direlarik.

Sinaturiko alokairu kontratuko klausulak betetzeko konpromisua hartuko du: Batez ere, lokalaren erabilera egokia gauzatzeko eta bukaerako epean lokala uzteko.

Ordainketak, jarritako baldintzetan egin beharko ditu.

Udalak, edozein momentutan, alokairuan dagoen enpresari, egunean eduki beharreko agiriak eska diezaioke, adibidez, diharduten langileen kontratuak, Gizarte Segurantzaren altak, etab.

## 11. artikulua.

Lokal hauen lagapena epe baterako izango da. Kontratua, urtebeterako eginik, gehienez hiru urte arte luza daiteke.

## 12. artikulua.

Hiru urte pasatu ondoren, edozein arrazoiengatik, enpresa bati luzapen bereziren bat eman, eta luzapen horren tartean, beste sustatzaile bati lokal horren eskaera onartu ezker, lehenengoak, 3 hilabeteko epean lokala utzi egin beharko du.

## 13. artikulua.

Eskaera kopurua, dauden lokal disponibilitatea baino handiagoa baldin bada, lokal esleipena gauzatzerakoan kontutan hartuko diren aldagaiak hauek dira:

- a) Sorturiko lanpostu kopurua.
- b) Aktibitatearen egokitasuna.
- c) Enpresa proiektuaren bideragarritasuna.

## 14. artikulua.

Ondorengo taulan ezartzen dira lokalen gaur egungo alokairu prezioak, hileko eta m<sup>2</sup>-ko:

### **Alokairu prezioak / Precios de alquiler**

Olaburu zentroa Centro Olaburu	Tailerrak Talleres	Bulegoak Oficinas
1go. urtea 1. año	0,79 Euro	0,98 Euro
2. urtea 2. año	2,35 Euro	2,83 Euro
3. urtea 3. año	4,52 Euro	5,44 Euro

### **C) «Saiatu» programa:**

#### *15. artikulua.*

Helburua:

Sarritan, enpresaren bideragarritasun azterlana burutzerakoan, eta enpresaren aktibitatea hasi aurretik, baliabide fisikoak behar dira. Adibidez, produktuen prototipoak egiteko, edo zerbitzu bat merkatuan testatzeko.

«Saiatu» programa honen helburu nagusia, enpresa berrien sorrera erraztu eta bultzatzea litzateke, horretarako, aholkularitza teknikoa eta baliabide fisikoak baldintza berezietan eskainiz.

#### *16. artikulua.*

Baliabideak: Saiakuntza Tailerrak/Bulegoak.

<b>ZERBITZU BULEGOAK MODULOS de SERVICIOS</b>		<b>TAILERRAK TALLERES</b>	
<i>Izena Nombre</i>	<i>Azalera Superficie</i>	<i>Izena Nombre</i>	<i>Azalera Superficie</i>
ZB1	24 m <sup>2</sup>	1B*	197,56 m <sup>2</sup>
ZB2	24 m <sup>2</sup>	3B*	202,23 m <sup>2</sup>
2C/5	16 m <sup>2</sup>	2C/2	70,62 m <sup>2</sup>
<i>* Beheko planta / En planta baja. - Besteak 1go plantan / Resto en 1ª planta</i>		2C/3	124,68 m <sup>2</sup>
		2C/4	51,71 m <sup>2</sup>
		3(1C+1D)	420,03 m <sup>2</sup>

*17. artikulua.*

Enpresa sortu aurretik, horrelako saiakuntza prozesuren baten beharrea dauden sustatzaileei egongo da zuzendurik laguntza mota hau.

*18. artikulua.*

Udala eta pertsona fisikoaren arteko alokairu kontratu bat sinatuko da, bertan xehetasun guztiak zehaztuko direlarik.

*19. artikulua.*

Lokal hauen lagapena epe baterako izango da. Kontratua, urtebeterako eginik, gehenez hiru urte arte luza daiteke.

*20. artikulua.*

Lokal hauen alokairu prezioa, sinbolikoa izanik, 10 Euro/hileko izango da.

**D)Laguntza bereziak.**

*21. artikulua.*

Enpresa proiektu estrategiko eta interesgarrientzat laguntza bereziak eman ditzake Udalak.

#### IV. ESKABIDEAK ETA AURKEZTEKO EPEA

*22. artikulua.*

Aurkezten diren laguntza eskabideak idatziko dira honela, Udalak egindako eskabide ereduaren arabera, eta interesdun guztiei emango zaie, udaletxean nahiz dirulaguntzaren tramite administratiboaren ardura duten udaleko sail eta bulegoetan (besteak beste, GEM-eko bulegoetan).

Eskabideak sinatu ondoren, Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Merkataritza Batzordeko lehendakariari luzatuko zaizkie.

*23. artikulua.*

Dirulaguntza hauek eskatzeko ez da egongo eperik, beraz, urte osoan irekiak egongo dira laguntza programa hauek.

#### V. EKARRI BEHARREKO AGIRIAK

#### 24. artikulua.

Eskaera orriarekin batera, hauek dira aurkeztu beharreko agiriak:

a)«Enpresa ideien bideragarritasun azterketa» edo «Saiatu» programetarako:

N.A.N.-ren fotokopia.

Sustatzaile/-en «curriculum vitae».

Enpresa ideia edo/eta aktibitatearen deskribapena.

Enpresa proiektuaren txostena (bukaeran).

Garatutako produktua/zerbitzuaren txostena («Saiatu» programa, bukaeran).

b)«Lokal lagapena» programarako:

N.A.N.-ren fotokopia.

Sustatzaile/-en «curriculum vitae».

Aktibitatearen deskribapena.

I.A.E.-delakoaren fotokopia.

Gizarte Segurantzaren, enpresa eta langileen altak.

#### 25. artikulua.

Eskabideak edo harekin batera doan nahitaezko dokumentazioak akatsen bat duenean edo osatu barik dagoenean, 10 eguneko epea izango dute interesdunek, Udalak egindako errekerimendua jakinarazten den hurrengo egunetik hasita, antzemandako akatsak zuzentzeko.

Emandako epea igarotakoan, horiek zuzendu barik, ez da onartuko dirulaguntza eskabidea, eta beste tramiterik gabe artxibatu egingo da prozedura.

#### 26. artikulua.

Behar bezala betetako eskabide inprimakiak Udaleko Erregistro Orokorrean edo GEM-eko bulegoetan entregatuko dira, ondorengo ordutegian:

–Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik - 14:00ra.

–Larunbatetan: 9:00etatik - 14:00ra (Udal Erregistroan).

Eskabide inprimakiaren ale bat eskatzailearen esku geratuko da eta beste alea Sarrera Erregistroan, eta hortik bidaliko dute dagokion sailera, izapidetu dezaten.

## VI. ERABAKIA

### *27. artikulua.*

GEM Batzordeak irizpen txostena burutu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak hartuko du erabakia.

### *28. artikulua.*

Laguntza edo dirulaguntza eman edo ez emateko erabakia arrazoitu egin beharko da, eta, edozelan ere, egiaztaturik egongo dira hartzen den erabakiaren oinarriak, deialdiaren oinarri-arauetan agintzen dituzten irizpide objektiboei buruz.

Erabakian, eskatzaileari jakinaraziko zaiona, agertuko dira, laguntza ukatu edo ematen zaion edo ez, kasu horretan, zenbat jasoko duen, nola ordainduko zaion, nola justifikatu behar dituen oinarri hauetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betebeharrak.

Era berean, horren aurka jar daitezkeen errekurtsioak adieraziko dira udalaren erabakian, bai eta zein organo judizialetan aurkeztu behar diren eta horiek jartzeko epea ere, interesdunek bidezkoz jotzen duten beste edozeinen kalterik gabe.

Orobat, dirulaguntzak emateko akordioetan 10 laneguneko epea emango zaie onuradunei, adierazi dezaten onartu dutela. Ulertuko da inplizituki onartu dutela, horretarako eman den epean besterik adierazten ez bada.

### *29. artikulua.*

Erabakiak eman eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezten direnetik hasita. Epe hori igarotakoan, berariazko erabakirik eman gabe, ulertuko da eskabidea ez dela onartu.

Emandako dirulaguntza guztien publizitatea egingo du Udalak, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18 artikuluan aurreikusitakoaren eran.

## VII. ONURADUNEN OBLIGAZIOAK

### *30. artikulua.*

Dirulaguntza emanaz gero, oinarri-arau espezifikoetan jasotakoez gain, entitate onuradunaren obligazioak dira hauek:

- a) Helburua betetzea, proiektua betearaztea, ekintza egitea edo dirulaguntza emateko zio den jokabideari eustea.
- b) Dirulaguntza eman duen organoari justifikatzea betebeharrak eta baldintzak bete izana, bai eta ekintza gauzatu izana eta dirulaguntza jasotzeko edo erabiltzeko helburua bete izana ere.
- c) Dirulaguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek, estatukoak nahiz erkidegokoek, egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontroleko beste edozein ere, eta errekeritzen zaien informazioa eman behar dute, aurreko jardunak burutzeko.
- d) Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako ekintzak finantzatzen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuk lortu izana. Jakinarazi beharko da horien berri izan eta berehala, eta edozelan ere, fondoei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.
- e) Egiaztatzea zerga obligazioak betetzen dituela Gizarte Segurantzarekin, Foru Ogasunekin eta Estatuko Ogasunekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin.
- f) Behar beste baimen lortzea, diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.
- g) Jarduera zelan garatzen ari den adieraztea, Udalaren eta Erakundearen aldetik jarraipena egin edo laguntzeko.
- h) Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea, dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero.

## VIII. ESKABIDEAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

### 31. artikulua.

#### 1) Aholkularitza teknikoa:

Tutoritza zerbitzua, orokorrean, laguntza eskatzen duten sustatzaile denek eduki dezakete. Proiektuaren berezitasuna kontuan izanik, beste zentru batzuetara deribatu litezke hainbat kasu.

#### 2) Bideragarritasun azterlanerako beka:

Bideragarritasun plana burutzerakoan, enpresa motaren arabera, egin beharreko lana ezberdina izango da. Hau horrela, hiru mailako laguntzak egongo dira:

<i>Maila Nivel</i>	<i>Enpresa proiektu mota Tipo de proyecto de empresa</i>	<i>Laguntza Ayuda</i>
1	Proiektu txikiak : (merkataritza, zerbitzu arruntak, oinarrizko tailerrak, gremioak, etab.) Proyectos pequeños : (comercio, servicios corrientes, talleres básicos, gremios, etc.)	300 Euro
2	Proiektu handiagoak : (dimentsio handiagoa duten aktibitateak, inbertsioa, merkaturia, kualifikazioa, etab., kontutan izanik.) Proyectos mayores : (actividades que tienen mayor dimensión, teniendo en cuenta la inversión, el mercado, la cualificación, etc.)	600 Euro
3	Proiektu berritzaileak : (berrikuntza eta teknologia ezarrita dauzkaten aktibitateak Proyectos innovadores : (actividades que tengan cierta innovación o integrados aspectos tecnológicos)	900 Euro

### **3) Sorturiko lanpostuengatik laguntza :**

Aurreko atalean ezarritako laguntzaz gain, programa honetan parte hartu duen enpresa batek, sorturiko lanpostuengatik, dirulaguntza hauek eduki ditzake:

- Enpresaren alta ematen denean, langile bakoitzeko 1.000 Euro. Langileen dedikazioa eta kontratua partziala baldin bada, laguntza proportzionala izango da.
- Enpresa alta eman den egunetik hiru urte arte, urtez urte, jarraipena egingo zaio, langilegoari dagokionez. Eta, urte bakoitzean langilego kopuruan gehikuntza balego, gehitu den langile kopuru horregatik, bakoitzeko 1.000 Euroko laguntza emango zaio enpresari.
- Dirulaguntza kuantifikatzeko, lanpostu kopurua, enpresa alta ematen den datakoa hartuko da kontuan. Eta ondoren, handik urtebetera, bi urtera eta hiru urtera.

## **IX. EMAN BEHARREKO DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKOA ETA BATERAGARRITASUNA**

### **32. artikulua.**

Laguntza guzti hauek, urteko aurrekontuetara eta momentuko lokal disponibilitatera mugaturik egongo dira. (1 1000.480.322.01.01 diru partida).

Enpresa proiektu bakoitzaren egoera eta beharren arabera, laguntza hauek bateragarriak izan daitezke.

## X. ALDI BEREAN BESTE LAGUNTZA BATZUK JASOTZEKO AUKERA ETA FINANTZAKETA MUGAK

### 33. artikulua.

Orokortasunez, onartzen da udal dirulaguntza aldi berean eta batera agertzeko aukera, nahiz diru sarrerak izan, beste Administrazio batzuetatik, partikularretatik eta abarretik datozen dirulaguntzen bidez, nahiz garatu nahi den proiektua edo jarduera finantzatzeko ezarri diren aportazioak edo kuotak izan.

### 34. artikulua.

Beste finantzabide batzuekin batera lortuz gero, eta oinarri-arau espezifikoek beste erregulazio bat ezarri ezean, finantza muga ezartzen da izandako gastuaren %100ean, hau da, ezin da inoiz izan gainfinantzaketarik Udalaren dirulaguntzarekin.

## XI. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO ERA ETA EPEAK.

### 35. artikulua.

Dirulaguntza ordainduko da, zertarako eman zen, helburu hori bete izana frogatu eta gero. Ordainketa, araudi honetan agertzen diren aurkeztu beharreko agiri eta txosten denak entregatu eta Udalak oniritzia emanaz gero burutuko da.

Dirulaguntzaren %100.<sup>a</sup> ordainduko da batera, Udalak oniritzia emandako datatik gehienez bi hilabetera.

## XII. DIRULAGUNTZAREN NORAKOA FROGATZEKO EPEAK ETA ERAK

### 36. artikulua.

Dirulaguntza edo/eta lokal lagapena jaso ahal izateko, sustatzaileek aurkeztu behar dituzten agiriak eta betebeharrekoak, kasu bakoitzean, hauek dira:

#### a) Bideragarritasun azterlanerako beka:

Enpresa proiektuaren txostena.

I.A.E. -delakoan alta (enpresa eratu ezker).

Langileen kontratuak eta Gizarte Segurantzako altak (enpresa eratu ezker).

b)Sorturiko lanpostuengatik laguntza:

Hasieran, eta urtez urte, sorturiko lanpostuen kontratuen eta Gizarte Segurantzako alden kopiak.

Administrazio ezberdinekiko, ordainketetan egunean dagoenen ziurtagiriak.

c)Lokal lagapena: Olaburu Enpresa Ekimenen Zentrua:

Enpresa proiektuaren txostena.

I.A.E. -delakoan alta.

Langileen kontratuak eta Gizarte Segurantzako altak.

### XIII. OBLIGAZIOAK EZ BETETZEA, ITZULKETA KASUAK ETA PROZEDURA

#### 37. artikulua.

1. Dirulaguntzen 38/2003 Legearen 36. artikuluan aurreikusitakoez gain, dirulaguntza emateko erabakia deuseztasunagatik edo deuseztagarritasunagatik, bidezkoa izango da jaso diren kopuruak itzultzea eta berandutza interesa eskatzea, dirulaguntza edo laguntza ordaindu den unetik aurrerakoa, hauetakoren bat gertatuz gero:

- a) Frogatzeko obligazioa ez betetzea edo jasotako fondoan zertarakoa ez frogatzea nahiko, ezarritako eran eta epeetan.
- b) Dirulaguntza eskuratzea, hartarako errekeritzen diren baldintzak faltsutuz edo ez ematea sor lekizkiokeen baldintzak ezkutatuz.
- c) Ez betetzea dirulaguntza ematerakoan onuradunari izendatzen zaizkion baldintzak.
- d) Ez betetzea, oso-osoan edo zati batean, laguntza edo dirulaguntza ematerako oinarri den xedea.

Horri buruz, eta berariaz besterik erabaki ezean Udalak, ez betetzea kontsideratuko da, hasiera baten dirulaguntza emateko onartu diren jarduera edo programen %50etik behera egitea.

- e) Uko edo oztopo egitea organo eskudunen kontrol jardueri.

f) Laguntza edo dirulaguntza bakoitzaren arau bereziek xedaturiko gainerako baldintzak.

2. Itzuli beharreko kopuruak behartze bidez eska daitezke, itzuli ezean Udalak zehazten dituen epeetan.

### *38. artikulua.*

1. Dirulaguntza eman zuen organoak berak izango du eskumena jaso den zenbatekoaren, osorik edo zati batez, itzulketa exijitzeko akordioa hartzeko.

2. Dirulaguntza itzultzeko prozedurari bere kabuz ekingo zaio laguntza edo dirulaguntza ematen duen organoak eskatuta, hura izapidetzeko administrazio atala arduradunak txosten egin eta gero, edota banakoren batek eskatuta edo salatuta.

3. Prozedura izapidetzerakoan bermatu beharko da, nolana ere, interesatuari entzuteko eskubidea.

4. Ematen den dirulaguntza guztiz edo alde ez dela behar bezala erabiltzen egiaztatzekotan, organo eskudunak ziodun ebazpena emango du, argiro adierazita zergatik itzuli behar duen nahitaez onuradunak, itzuli beharreko zenbatekoa eta horretarako epea eta modua, aipatuari ohartaraziko zaiola dirua xedaturiko epean itzuli ezean, premiamenduzko bideari ekingo diola Udalak.

5. Itzultzeko prozedurari ekiten bazaio administrazio arauen bat urra dezakeen zer edo zergatik, horren jakitun jarriko da organo eskuduna arauzko zigor prozedurari ekiteko.

### *39. artikulua.*

1. Itzultzeko prozedura pertsona fisikoen edo juridikoen kontra zuzenduko da, edo nortasun juridikoa ez daukaten pertsona fisiko edo juridikoen taldeetako kideen kontra, dirulaguntzaren eskatzaile edo onuradun agertzen direnak.

2. Erantzukizun solidarioa, edo subsidiarioa erabakitzeko, dirulaguntza itzultzeko obligazioaren ondorioz, gehiturik berandutza interesak, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 40. artikuluan xedatutakoari lotuko zaio.

## XIV. BERMEAK

### *40. artikulua.*

Dirulaguntza emateko akordio konkretuek besterik xedatu ezean, ez da jotzen beharrezko bermeak exijitzea Udalaren alde, emandako laguntzengatik.

## XV. OINARRIEN INTERPRETAZIOA ETA BALIABIDEAK

*41. artikulua.*

Oinarri-arau hauek interpretatzeari buruz sortu daitezkeen zalantzak erabakiko ditu deialdi hau onartzeko organo eskudunak, Tokiko Gobernu Batzordeak, dagokion Garapen Ekonomiko, Enplegua eta Merkataritza batzorde informatzailearen proposamena aztertu eta gero.

*42. artikulua.*

Oinarri-arau hauek onartzeko akordioaren aurka, behin betikoa dena administrazio bidean, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da aukerabideko izaeraz, administrazioarekiko auzi errekurtsoa baino lehen, hilabeteko epean, edo zuzenean jarri administrazioarekiko auzi errekurtsoa Donostiako Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hileko epean, oinarri-arau hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasita kontatzen bi epeok.

Oñati, 2008ko apirila